# XIX. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

# XIX FERIA DE ARTESANÍA DEL PAÍS VASCO

Euskal Herriko XIX. Eskulangintza Azoka hemeretzigarren aldian maiatzaren lehen astean egin zen ohiko ohiturari jarraituz. Hasi maiatzaren lehenean eta laua arte, Niessengo Kultur Zentruan, gure herriko artisautzaren lanik bikainenak ikusteko zoria izan zuten bertaratu zirenek.

Aurtengo ekinaldiak bere goi maila erakutsi du eskulangileen kopurua, ikusleen ugaria eta antolaketaren zeregina gogoan hartzen baldin badira.

Antolaketaren egokia aipatzerakoan ez gara gu geu horretaz ari. Philippe Laffontek, Iparraldeko eskulangileak, horrelaxe aitortzen zuen France Pays Basque irratian eginiko adierazpenetan, antolaketa goraipatuz eta herritarrak "eskulangintza feria bikain" honetara ager zitezen dei eginez.

La Feria de Artesanía del País Vasco, que este año ha celebrado su decimonovena edición, llegó puntualmente a su cita en la primera semana del mes de mayo. Del 1 al 4 de este mes se pudo contemplar en el Centro Cultural "Niessen" de Rentería lo mejor de la artesanía tradicional de este país.

Una edición más, que pasará a la historia, con gran éxito a todos los niveles: Artesanos, público y organización.

Y lo de éxito en la organización no es que lo digamos nosotros. Philippe Laffont, artesano de Iparralde, en declaraciones a Radio France Pays Basque, mostraba su admiración por la excelente organización del evento, emplazando a todos sus paisanos a visitar una "admirable feria de artesanía".





Maiatzaren lehena zen, goizeko hamaikak, feriaren ekinaldi berri honi hasiera eman zitzaionean. Gonbidatuek ere ongi erantzun zuten eta jende ugari bildu zen hasiera emateko.Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia arloko diputatuak, Guillermo Echeniquek, eta Errenteriako alkateak Miguel Buen jaunak , inguratutakoei ongi etorria eman ondoren, zinta ohikoa den gisa ebakiz eman zioten hasiera aurtengo feriari.

Denera 42 eskulangile izan ziren hautatuak aurtengo feriarako. Azpimarratzekoa da hauetatik hamabost lehen aldiz agertzen zirela eta Euskal Herriko feriarik bikainenean eskuhartzea beraientzat biziki pozgarria izan zela.

Denetarik aurkeztu zen: egurrean eginiko lanak, zestugintzan, burdin eta metaletan, buztin eta harritan, larru, oihal, elikagai eta abarretan.. Bertaratutakoek era askotako lanak, kalitate haundikoak eta estetikari dagionez miresgarriak ikusi ahal izan zuten.

Euskal lurralde guztietako langileak bildu ziren azoka honetara. Gipuzkoakoak hamaika ziren, 10 Bizkaikoak, 9 Arabakoak eta 2 Iparraldekoak.

Esan beharra dago eskulangileak hautatzea izan ohi dela antolatzaileentzat lanik zail eta nekagarriena. Asko dira ber-

Fue el día 1 de mayo, a las 11 horas de la mañana cuando se dio el pistoletazo de salida de esta nueva edición. Al acto de inauguración estaban invitadas numerosas personas que en su mayoría acudieron. Cabe destacar la presencia del Diputado de Economía de la Diputación Foral de Gipuzkoa, D. Guillermo Echenique, así como la del alcalde de Rentería, D. Miguel Buen. Ambos tomaron la palabra para ensalzar la Feria de Artesanía y dar la bienvenida al público asistente. Momentos después con el corte de la cinta se procedía a la apertura oficial de la Feria.

En total fueron 42 los artesanos elegidos para la edición número 19. De ellos 15 lo hacían por primera vez, cumpliendo con ello, una de sus mayores ilusiones; asistir a la mejor feria de artesanía que se celebra en el País Vasco.

Y se pudo ver de todo; artesanía en madera, cestería, hierro y metales, barro y piedra, cuero, textiles, alimentación, etc... ofreciendo al público asistente una gran cantidad de productos acabados artesanalmente de gran calidad y belleza estética.

La procedencia geográfica de los mismos ha sido también variada, con 11 artesanos de Gipuzkoa, 10 de Nafarroa, 10 de Bizkaia, 9 de Araba y 2 de Iparralde.

tan esku hartu nahi duten langileak eta mugatua oso horretarako tokia. Jendaurrean lan egitea eskatzen zaien arren, gogo onez egiten dituzte azalpenak beharrezkoak diren argibideak emanaz. Guztiek aho batez aitortzen dute, era honetako Feriei eskerrak, beren lanak jendaurrean ezagutarazteko egokiera izaten dutela.

Feria ikustera bertaratutako ikuslegoa iazkoa baino zertxobait ttikiago izan zen arren, 12.000 lagun bildu ziren. Ez da ez txantxetakoa batez ere egun horietan zubi bat izan zela eta lau egun horietan eguzkiaren beroak beste aukera batzuk eskaintzen zituela gogoan hartzen baldin bada. Jakina, horrelako eguraldi aukeraz baliatuz, zenbait jendek hondartzara, mendira edo beste norabaitera jo zuen.

Esan beharra dago, beraz, jendearen erantzuna oso ona izan dela eta ikusleen jakinmina asetzeko, kultur fenomeno bezala ezagutzeko eta hainbat eskulan erakargarri erosteko parada izan dutela urtez urte, huts egin gabe, bertaratzen direnek.

Azoka garatu zenarekin batera, Xenpelar Aretoan, Oiartzungo "Goruzaleak" taldeak erakusketa bikain bat eskaini zuen oihalgintzarekin zer ikusia zuten ehundik gora lan tresna erakutsiz.

Behin da berriro, garbi dago Euskal Herriko Eskulangintza Azoka hau Euskal Herri osoan erakargarriena eta eraginkorrena dela, Gipuzkoako Foru Diputazioari, Errenteriako Udalari eta Kutxari eskerrak burutzen den azoka ez litzateke ezertxo ere izango herritarren erantzuna jasoko ez balu.

Badator hurrengo maiatza, han izango dugu berriro erronka latza.

El criterio de elección de los artesanos que intervendrán en cada edición es la labor más ardua y difícil que se le plantea a la organización. Son muchos los artesanos que quisieran venir y poco el espacio disponible. A pesar de que se les obliga a trabajar de cara al público, mostrando el desarrollo de su trabajo, todos lo hacen encantados y coinciden en señalar que, gracias a este tipo de Ferias, pueden exponer sus productos a gran cantidad de público.

El número de personas que acudió a la cita, aún siendo inferior al del pasado año, rondó las 12000 personas, lo que constituye un gran éxito de público, teniendo en cuenta que esta edición ha coincidido con un puente festivo y además brilló el sol en los cuatro días de duración. Esta coincidencia hizo que muchas personas tomaran otras opciones para su tiempo libre, como el monte o la playa, en detrimento de nuestra oferta.

No obstante, hay que mencionar que el nivel de público ha sido satisfactorio y que la curiosidad cultural y la posibilidad de adquirir productos verdaderamente atractivos, sigue moviendo a un gran número de incondicionales que año tras año visitan la Feria de Artesanía.

Paralelamente al recinto ferial, se celebró en la Sala "Xenpelar" una exposición monográfica sobre la artesanía textil a lo largo de la historia. Para ello el grupo "Goruzaleak" de Oiartzun expuso más de un centenar de útiles y herramientas.

En definitiva, un año más la Feria de Artesanía del País Vasco se consolida como la más concurrida y la de mayor proyección en el País Vasco. Una Feria en la que esperamos seguir contando con la ayuda institucional por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Excmo. Ayuntamiento de Rentería, así como de la Kutxa. Pero desde luego nada de esto sería posible sin el apoyo de ustedes: el público.

Ya saben, el próximo mes de mayo, más y mejor.